

UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK MARKETING DIGITAL INDUSTRIALA (3. ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2023/2024

ARLOA: Gizarte eta Lege Zientziak

KREDITUAK: 4,00 edo 12,00ECTS kreditu

MATRIKULA TASA: 220,00 edo 660,00 (aseguru 4,00 €)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Miguel Ángel Peña Cerezo eta Jorge Tejedor Núñez

AURKEZPENA

Hedakuntzako ikastaro honek industria-enpresaren kudeaketa digitalari lotutako prestakuntza-eskaerari erantzuten dio, 4.0 eraldaketa bizian murgilduta baitago eta garrantzi handia baitu euskal ekonomiarentzat. Testuinguru honetan, hedakuntzako ikastaro honek prestakuntza-bide bat eskaintzen die IKTek industria-enpresen marketin digitalaren ingurunean eraginkortasuna eta lehiakortasuna hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak ezagutu nahi dituzten pertsonari. Edukia: Business intelligence; webgunea, bloga eta RRSS; inbound marketina; IoT eta digitalizazioa industrian; kudeaketa-esperientziak.

ZURE BILA GABILTZA

Prestakuntza honek industria-sektoreko kudeaketa digitalaren arloko prestakuntza-beharrei erantzuten laguntzen du, bai kudeaketa-profiletan baita profil tekniko-teknologikoetan ere. Merkataritza kudeatzeko eta industria-ingurunean informazioa tratatzeko bokazioa duten pertsonak bilatzen ditugu, espezializatu eta digitalki eguneratu nahi dutenak 4.0 Industriaren erronkei aurre egiteko. Digital Management & ERP masterrarekin lotuta dago. Aintzatespena: 12 ECTS kreditu

IRTEERA PROFESIONALAK

Unibertsitate hedakuntzako ikastaro honek zure garapen profesionalean aurrera egiteko aukera ematen dizu, osagai digital sendoa duen ingurune ekonomiko eta industrial berri batean. Prestakuntza honek industria-kudeaketaren arloan osagai digital handia duten profil profesionalen gero eta eskari handiagoari erantzuten dio. Hona hemen adibide batzuk: merkataritza-informazioaren kudeatzailea, social selling/community manager, web-posizionatzailea, datu-analista, garatzaile digitala merkataritza-arloan, salmenta-teknikaria, kanpo-aholkularia, profil digitala duen profesionala industria-enpresetan, etab

BALDINTZAK

Eskatzaileak informazioaren kudeaketan eta enpresen antolaketan dituen gaitasunak baloratuko dira, edo haren profilak industria-sektorearekin lotura dutenak.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2024/01/16-tik 2024/02/22-ra

EMATEKO TOKIA: Ekonomia eta Enpresa Fakultatea Vitoria-Gasteiz

HIZKUNTZA: Gaztelania

INFORMAZIOA/IZEN-EMATEA

HELBIDEA: Izardui Komandantea, 23. 01006 Vitoria-Gasteiz

TELEFONOA: 945 014 369

POSTA ELEKTRONIKOA: digitalmanagement4.0@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.